

GRADU AMAIERAKO LANA

EMAKUME KIROLARIEN PRESENTZIA ETA IRUDIA GIPUZKOAKO EGUNKARI NAGUSIENETAN (2015)

Egilea: Maddi Labaka Mayo

Tutorea: Ana Beatriz Garay Ibañez de Elejalde

Ikasturtea: 2015-2016 ikasturtea

Deialdia: Ekaina

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

AURKIBIDEA

ATARIKOA

- | | |
|-------------------|-----------|
| 1. Justifikazioa | 3. orr. |
| 2. Lanaren edukia | 3-4. orr. |
| 3. Hitz gakoak | 4. orr. |
| 4. Helburuak | 5. orr. |

MARKO TEORIKOA

- | | |
|--|-------------|
| 1. Emakumea kirolean: Ezina ekinez egina | |
| 1.1. Emakumezkoen kirola historian: Nahi eta ezinaren kronika | 6-10. orr. |
| 1.2. Joko Olinpikoen garrantzia emakumezkoen kirolean: Ekina | 10-14. orr. |
| 1.3. Emakumezkoen kirola gaur egun: Egina(Eta egiteke dagoena) | 14-19. orr. |
| 2. Emakumezkoen kirola egunkarietan: | |
| 2.1. Egunkarien garapena emakumezkoen kirola lantzen | 19-22. orr. |
| 2.2. Egunkarien jokaera ikertuz emakumezkoen kirolarekiko | 22-25. orr. |

METODOLOGIA

- | | |
|----------------------|-------------|
| 1. Edukien analisisa | 26. orr. |
| 2. Lagina | 27. orr. |
| 3. Tresnak | 28. orr. |
| 4. Prozedura | 28-29. orr. |

EMAITZAK

- | | |
|---------------------------------------|-------------|
| 1. Emaidza kuantitatiboak: Presentzia | 30-37. orr. |
| 2. Emaidza kualitatiboak: Irudia | 37-46. orr. |

ONDORIOAK

- | | |
|--------------|-------------|
| 1. Ondorioak | 47-48. orr. |
|--------------|-------------|

2. Gogoeta pertsonala	49-50. orr.
3. Lanerako mugak	50. orr.
4. Etorkizunerako ildoak	50. orr.

ERREFERENTZIAK

51-55. orr.

ERANSKINAK

1. Emaidza kuantitaboen taula	56. orr.
-------------------------------	----------

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: 2015. urteko kirol berrien banaketa	30. orr.
2. Irudia: 2015. urteko Diario Vascoren kirol berrien banaketa	31. orr.
3. Irudia: 2015. urteko Gararen kirol berrien banaketa	32. orr.
4. Irudia: 2015. urteko Noticias de Gipuzkoaren kirol berrien banaketa	32. orr.
5. Irudia: 2015. urteko emakumezkoen berrien ehunekoak hilabeteka	33. orr.
6. Irudia: Diario Vascoren hilabeteen garapena	34. orr.
7. Irudia: Gararen hilabeteen garapena	36. orr.
8. Irudia: Noticias de Gipuzkoaren hilabeteen garapena	37. orr.

ATARIKOA

1. Justifikazioa

Historian zehar emakumeen parte-hartzea debekatua egon den esparru publiko guztietatik, berdintasunerako bidean esanahi berezia duena da kirola. Dударik gabe, jarduera fisikoak eta kirolak emakumea esparru pribatutik ateratzea ahalbidetu dute, kirol praktika euren bizitzan barneratzea generoen arteko berdintasunerako lehentasunezko helburu gisa ulertu behar delarik.

Betidanik gizonezkoen esparrua izan den honetan lekua lortzeko bidean, hainbestetan errepikatu den esaldiak, emakumea “sexu ahula” dela, bere ondorioak ekarri ditu: Susan Brownell (1820-1906), XIX. mendeko feminista estatubatuarra zioen bizikletak munduko beste edozerk baino gehiago egin duela emakumearen emantzipaziorako, eta benetan kirolak horrenbesteko eragina izan badu, zergatik gizartean ez da horrela islatua azaltzen?

Gizartean gertatzen dena egunkarietan agertzen omen da, baina bertan emakume kirolaria gutxitan ageri da, gutxietsi egiten da. Oraindik ere gutxiago gara, baina ez gutxiegi: gizonezkoek adina kirol, lehiaketa, txapelketa eta zer erakutsia izanda ere, komunikabideetan ez da hori erakusten, emakumezkoen kirolaren eboluzio eta aurrerakada egunkariei ahortzi egin zaie, dirudienez. Zein da egunero jasotzen dugun kirolaren kontzeptua? Zein da emakume kirolariak bertan duen presentzia eta irudia?

2. Lanaren edukia

Mendeak esparru pribatuan mantentzera behartuta egon ondoren, emakumea kirol praktikara barneratzen joatea denborekin eman den prozesu bat izan da.

Kretako emakumeek hasitako bideari jarraiki, aro eta garai bakoitzeko emakumeek euren borroak irabazi behar izan zituzten atlantikoaren bi aldeetan; greziar, egipziar eta erromatar kulturetatik hasi eta Erdi Aroa zein Errenazimendua garaitu ondoren, kirol modernoaren aroraino, gaur egunera

helduz. Borroka horretan guda nagusia Joko Olinpikoena izan da, joko modernoaren berrezarpenetik bai eta ezaren artean ibili baita beti emakumezko kirolarien onarpena. Emakume oldarkorrek eskuratutako lorpen eta garaipenek gaur egun dugun egoeraraino ekarri gaituzte, baina aurrerapenak aurrerapen, oraindik ere egunkarietan emakume kirolarien trataera gizonezkoen desberdina dela onartu behar da.

Gai honi heltzen dituen maila nazional zein autonomikoko ikerketak aurkitu ditzakegu, baina egunkariak emakume kirolarien estereotipoak eraikitzeaz haratago, gaur egun emakume kirolarien eta egunkariaren arteko harremanean asko dago oraindik eraikitzeke.

Hori ikusirik, honako lan honetan egunkarietan emakume kirolariaren trataera ikusi da, datu kuantitatibo eta kualitatiboen bidez emaitzak eta ondorioak ateratzeko. Egunkariak, kasu honetan Gipuzkoako egunkari nagusienek, emakumezkoen kirolari eskainitako abagunea eta kopurua ikertu dira, bai presentzia eta bai irudia aztertuz. Azterketa horretan, probintziako hiru egunkari nagusienetako hilabete bakoitzeko lau ale analizatu dira, 2015. urteko emaitzak lortuz.

Emaitza horietan ikus daiteke kirol berri osoen erdira ez dela iristen behin ere emakumea, berrien laurdena izatea ere gutxitan lortzen duela gehituz. Egunkariaren artean desberdintasunak nabariak dira, bai berri kopuruaren aldetik baita trataeragatik ere.

Bestalde, emakumezkoen berrien formulazioan, kokapenean zein argazkietan historian zein prentsan eman den garapen hori zalantzan jarri daiteke, analizatutako orrietako irudi bidez ikusi daitekeen gisan.

Emaitza eta ikerketa honetatik atera daitekeen ondorio nagusia ondorengo da: Emakume kirolarien presentzia eta irudia Gipuzkoako egunkarietan 2015. urtean merezimendu eta lorpenetatik oso urrun gelditzen da.

3. Hitz gakoak

Emakumezkoen kirola, emakumearen presentzia, emakumearen irudia, komunikabideak, Gipuzkoako egunkariak.

4. Helburuak

Lan honen helburu nagusia arestian aipaturiko emakume kirolarien presentzia eta irudiak egunkarietan duen trataera aztertzea da. Hori abiapuntu izanik 2015. urteko datu zehatzak atera eta benetan emakumea gutxiesten dela frogatu nahi da.

Bestalde, gutxiespen hori baieztatzeko, garai batetik gaur egunera emakumezkoen kirolak prentsan izan duen garapena eta garapen horren inguruan egin diren ikerketak aztertu nahi dira, eman diren urrats guztiak eta gero, benetan egoera honetan egon beharko ginatekeen ikusteko.

Gainera, egunkariek emakumezkoen kirolari eskainitako tratamendua ulertezina izango litzateke emakumezkoen kirolak historian zehar izan dituen gatazka eta tirabira guztiak analizatu gabe. Beraz, lan honen beste helburu sendoetako bat emakumezkoen kirola lehen aztarnetatik gaur eguneraino aztertzea da, jasan duen garapena ulertzeko asmoarekin.

Amaitzeko, teoriatik haratago, ikerketa propio eta zehatz bat egitea da helburua. Nire analisi eta metodologia erabilia, ikerketa bat burutzea da nahia, ondoren emaitzak ikusi eta nire ondorioak atera eta hausnarketari bide emateko.

MARKO TEORIKOA

1. Emakumea kirolean: ezina ekinez egina

1.1. Emakumezkoen kirola historian zehar: Nahi eta ezinaren kronika

Sexu/genero sistemak emakumea historian zehar jarduera sozial askotatik alboratua izatea eragin du, eta kirola ez da salbuespen izan. Hala ere, ukazina da historian zehar aldaketak izan direla, bilakaera etengabea emanaz egungo egoerara heldu arte.

Kirolean emakumeak izan duen esku-hartzearen dokumentazio etnografikoa eskasa da arrazoi desberdinengatik. Alde batetik, emakumei bideratutako jarduerak emakumeentzat erreserbatzen ziren; beste alde batetik, lehenengo antropologoak gizonak izaki, emakumeen jardueretatik kanpo gelditzen ziren; eta, horrez gain, emakumeek kirol jarduera askotan osagarri papera besterik ez zuten betetzen (Blanchard eta Cheska, 1986).

Kirol praktikan emakumeen parte hartzearen lehen aztarnak Kretako kulturaren (K.a. 3500) ageri dira. Urte haietan, emakumeek lasterketa, ehiza, gurdi-lasterketa eta tauromakia bezalako indarkeriazko kirol jarduera ezberdinetan hartzen zuten parte (Sainz De Baranda, 2013b; Vázquez, 1987).

K.a. 1200 urtearen inguruan kretar kultura desagertu egin zen eta kirol arrastorik gabeko denboraldi baten ondoren, K.a. IX. mendean Greziako lurraldearen baldintzak hobetu ziren, gizartea kirol jardueretara bultzatuz (Salvador, 2004).

Emakume greziarrei buruz idatzi denaren arabera, euren bizitzan zehar eta batez ere ezkondu ondoren, ez zuten harremanik izaten kirol bizitzarekin. Hala ere, greziar mitologian noizean behin emakumeak kirola praktikatzeko ageri dira, beti ere maskulinoki ezaugarrituta azaltzen direlarik (Sainz De Baranda, 2013b). Cirene ninfa eta Atalantaren kasua da mitologia greziarreko emakume kirolarien existentziaren adierazle (Sainz De Baranda, 2013b; Vázquez, 1987).

Grezia Klasikoan hezkuntza fisikoak gorputza eta adimenaren arteko armonia bilatzen zuen, baina soilik gizonezkoen ondarea zen (Macías, 1999). Esklusiboki emakumezkoenak ziren lehiaketak jokatzeko ziren; baina, aldi berean, ezin zuten estadioetara joan Joko Olinpikoak ikusteko ere. Aipaturiko lehiaketa hauetatik “Hereo Jokoak” ziren garrantzitsuenak, Hera jainkosaren ohorez jokatzeko ziren lasterketak (Macías, 1999; Sainz De Baranda, 2013b). Lasterketa hauek emakume gazte zein helduen artean gehien zabalduriko kirola bilakatu eta, gizonezkoen jarduerarekin alderatu ezin zen arren, argi gelditzen da emakumeak kirola egin eta lehiaketetan parte hartzen zuela (Sainz De Baranda, 2013b).

Egipziar gizarteak ere pintura bidez transmititu du emakumeen kirol munduko irudia, eta arte lanetan ikus daiteke ehizara joan eta Nilo ibaiaren ertzean igerian ikasten zutela (Blanchard eta Cheska, 1986).

Emakume erromatarrari dagokionez, eremu publikoan ikusle hutsa zen, baina espektakuluetara joateko aukera eskuratu zuen behintzat. Garai honetan onarpen soziala lortu zuen, beti ere gizonezkoen maila berera heldu gabe. Emakume hauen jarduera apurra termetan eman zen, barnean gimnasio eta kirola egiteko lekuak baitzeuzkan eta pilota, disko jaurtiketa, lasterketak eta antzerakoak burutzen zituzten (Sainz De Baranda, 2013b; Salcedo, 1993).

Espartan, aitzitik, emakume gazteak ezkondu baino lehen fisikoki prestatzen zituzten korri eginaz, borrokatuz eta disko zein xabalina jaurtiketak landuz. Jarduera hauek ongi hornitutako haur osasuntsuak izango zituztela ziurtatzeko helburu hutsarekin burutzen ziren uste faltsua onartu den arren, emakume hauek errespetatuak ziren; eta, independente izatera eta kirol kementsuak praktikatzera bultzatzen zituzten (Macías, 1999).

Erdi Aroak, armazko torneoak hain usu egiten zireneko garaiak, oso esanahi berezia du emakumearentzat. Kristautasunaren sendotzeak ariketa fisikoaren aldaketa garrantzitsua suposatu zuen, aro kristauarekin emakumearen kirolari amaiera emanaz eta subjektu pasiboa izatera behartuaz (Sainz De Baranda, 2013b). Alde batetik, eta beste garai batzuetan bezalaxe, bere parte hartzea

antolatzen ziren arma torneoetan ikusle soila izatea besterik ez zen; eta, beste aldetik, lehiaketa horien irabazlearen sari bihurtu zen (Salcedo,1993). Ondorio gisa emakumezkoen gorputz ariketak eta espektakuluak desagertu eta beste mota bateko praktikak hasi ziren; baina, hala ere, aroaren amaieran emakume batzuek hipika eta ehizan parte hartzen hasi ziren, eta, tenis eta izotz gaineko patinajearen aritu izanaren lekukotasunak ere badaude (Sainz De Baranda, 2013b; Salcedo,1993).

Errenazimendutik XVII. mendera arte, kirol alorrean emakumeen papera aurreko etapa historikoaren bera izan zen: maila altuko emakumeek dantzak zituzten entretenimendurako, baita ehiza eta hipika ere. Bitartean, herri xeheak joko herrikoietan hartzen zuen parte (Sainz De Baranda, 2013b).

XVII y XVIII. mendeetan, Europako emakumeak kirol eta aisialditik guztiz alboratuta zeudela uste zen, baina, gizonezkoen parte-hartzea baino baxuagoa izan arren, praktikan ibili ibiltzen ziren. Zehatzago esanda, XVIII mendean ehiza eta borroka jarduerak bi sexuentzat interes handiko jarduerak ziren. Bestalde, borroka esaterako, langile klaseko gizonen kirola izan arren, emakumeek ere praktikatzuten zuten; eta horrez gain, Britainia Handiko bolo jokoak, Veneziako emakumeentzako estropadak eta Invernesseneko, Eskoziako, emakume ezkondu eta ezkongabeen futbol partidak emakumeek kirol praktikan zuten interesa adierazten duten zertzeladak dira (Macías, 1999).

Joko tradizional eta beste jarduera fisiko lehiakorrek XVIII. mendean bilakatu ziren kirol, eta, gaur egun ulertzen den kirol moderno gisa XIX. mendean garatu zen. Kirol praktika berdintasunezko ezaugarriekin garatzeko bidean lehen nazioak Ingalaterra eta AEB izan ziren hurrenez hurren. Ingalaterran XVII eta XIX. mendeen artean emandako gertaera historikoen eraginez, zibilizazio prozesuarekiko korrelazioan, Nibert Elias eta Eric Dunningek “kiroltze prozesua” deiturikoa jazo zen, zeinetan aristokrata eta jauntxoek aisialdiaz gozatzeko modu ez horren bortitzak garatu zituzten (Sentamans, 2010).

Ingalaterran, kirol modernoaren hastapenean, emakumeak elementu pasibo ziren, ikusle eta animatzaile gisa joaten ziren lehiaketetara, baina denboraren

joanarekin mitoak gainditu eta aretoko jarduerak baztertu eta kalekoengatik aldatu zituzten, arku jaurtiketa, kriketa edo patinajea praktikatzuz (Sainz De Baranda, 2013b; Salcedo, 1993). Mendearen hondarrean kirola demokratizatzen hasi zen eta ariketa antolatu eta egituratuaren iraultza jazo zen, hau da, kirol modernoaren ideia gauzatzen ari zen, non emakumea, era lotsatian izanik ere, parte hartzen hasia baitzen (Blanchard eta Cheska, 1986).

Atlantikoaren bestaldean, Independentzia Gerraren ondorioz, XVIII. mendearen amaieran hamahiru estatuk herrialde berria osatu zuten: Ameriketako Estatu Batuak. Aurrekari historikorik ez zuen nazioa izaki, britainiar ohiturak hartu zituen (Sentamans, 2010).

Gainera, XIX. mendeko emakumezkoen kirolaren garapena emantzipazio femeninoaren mugimenduarekin lotua egon da. Mendearen hasieran Atlantikoaren bi aldeetan gutxiengoa ziren kirola egin nahi zuten emakumeak eta gizonengandik diskriminazioa jasaten zuten. Mendearen bigarren erdian, ordea, indar kulturalak azaldu ziren eta burgesiako emakumeek beraien eskubideak aldarrikatu zituzten. Horrela, emakumeek fisikoki bizitza aktiboagoa izatea lortu zuten, nahiz eta gaitasun, rol eta estereotipoen ideiak gizartean mantendu (Macías, 1999).

Bilakaeran zehar momentu erabakigarri bat Joko Olinpiko modernoan hasieran emakumea alboratu izana izan zen. Garaiko konbentzionaltasunek kirol praktika amatasunarentzako kaltegarria zela zioten, baita gaixotu eta antzutu zitezkeela ere. Dударik gabe, guzti hau atzera pauso garrantzitsua izan zen eta fisiologia desberdintasunaren iritziak zein gizartean zeuden rolek ez zuten batere lagundu (Korkostegi, 2015).

XX. mendearen hasieran Joko Olinpikoak berrezarri izana aurrerapauso handia izan zen emakumeentzako kirolaren aldarrikapen horretan. Nazioarteko Batzorde Olinpikoak emakumezko atletei parte hartzea ukatu zienean, haiek erantzun bateratua eman eta haien ahotsa entzunarazi ondoren, emakumeak onartu behar izan zituzten. Horrela, 1912ko Olinpiadez geroztik kirol probaren batzuetan parte hartzen hasi ziren eta hasitako bide hori zabalduz joan da gure

egunotara arte, nahiz eta oraindik ere emakumezko ordezkariak gabeko kirolak baden (Salcedo,1993).

Emakumeak kirolean guztiz barneratzeko prozesua pixkana eman zen eta Lehen Mundu Gerra amaitu arte ez zuten modu aktibo batean parte hartu kirol munduan. Ondoren, 1971an, AIAW (Association for Intercollegiate Athletics for Women) sortu zen, neska eta emakumeentzako aurrerapauso izugarria izan zena. Emakume ikasleentzako kirol aukerak diseinatu eta sortzeaz arduratzeaz gain, kirolean berdintasuna defenditu eta justizia lortzeko (Macías, 1999).

Ikusi daitekeenez, mendeetan zehar emakumearen oinarriko paper sozialak emazte eta amarenak ziren usteak kultura estereotipoak eragin ditu, kirolaren munduan barneratzea zailduz. Orokorrean, estereotipo guztiak amatasunarekin, gaitasun fisiko urriagoa izatearekin eta edertasun kanonekin lotuta daude, zeinak bi multzo handitan bereizi daitezkeen: osasunarekin erlazionaturikoak eta edertasunarekin erlazionaturikoak. Ondorioz, kirolera heldu ahal izateko, emakumeek “feminitatearen estereotipo hegemonikoa” onartu behar izan zuten femeninotzat harturiko kirol modalitateetan soilik lehiatu ahal izan zirelarik (Korkostegi, 2015).

Ondorio gisa azpimarratu daiteke emakumeari kirola interesatzen eta gustatzen ez zitzaiola zabaldu zela historian zehar, kirola gizonen eta gizonentzat sortutako praktika bezala identifikatuz eta rol maskulinoekin erlazionatuz Gaur egun, ordea, emakumeek lehiaketa guztietan hartzen dute parte, eta batzuetan modu argian gailentzen eta nabarmentzen dira gainera (Sainz De Baranda, 2013b; Korkostegi, 2015).

1.2. Joko Olinpikoen garrantzia emakumezkoen kirolean: Ekina

Coubeting Baroia, baliabide ekonomikoak eta tendentzia misoginoak zituen noblea, izan zen Joko Olinpiko Modernoak berrezarri eta XIX. mendearen azken hamarkadan Nazioarteko Komite Olinpikoa (COI) eratu zituena (Sentamans, 2010). Dirudenez, Baroiak greziar klasikoan zeuzkaten ideia berberak zituen, emakumeek burutu beharreko funtzioak kasu: gorputza haurrak edukitzeko helburuarekin bakarrik landu behar zuen, sekula ez

lehiatzeko helburuarekin (Lallana, 2005). Joko Olinpikoen pizkunderako propagandan agerian gelditu zen Coubertingen filosofia, zeinen eraginez emakumearen jokoetarako sarbidea konplexua eta zaila izan zen. Noblearen ideologia atzerakoi, misogino eta klasista bat zetorren beste nazio askoren kirol modernoaren kirolariaren idealarekin, eta, honengatik, emakumeak urteetan zehar jarrera pasiboa mantendu behar izan zuen Joko Olinpikoetan (Sentamans, 2010).

Berrezarpen horren harira, garai berriko Joko Olinpikoen lehen edizioak Atenas izan zuen egoitza. (González Ramallal, 2004; Lallana, 2005; Macías, 1999; Sentamans, 2010). Gertakizun honek mundu guztian izan zuen eragina, kirola gertakizun sozial unibertsal bezala egituratu eta onartuaz (González Ramallal, 2004).

Emakumeari ukatu egin zitzaion antzinako Joko Olinpikoetan parte hartzea, eta, oro har, aro berriko lehenbizikoetan, 1896an (Lallana, 2005; Macías 1999; Salcedo, 1993). Baroiak klase sozial altuko gizon zurientzako kirol ospakizun bezala ulertzen zituen Jokoak, emakumeak aipatu ere egin gabe (Lallana, 2005).

Kirola praktikatzeko denbora libre nahikoa zuten emakumeek 1900. urtean Pariseko bigarren Joko Olinpikoetan parte hartzea lortu zuten (Lallana, 2005). Emakumezkoen kirola apaingarri gisa eta lehiaketa balore gabe egon zen presente, soilik botereari loturiko goi esferetako damen presioarengatik lortu zelarik kirol "femeninoetan" aritzea (Sentamans, 2010). Batzorde Olinpikoaren iritziei jarraikiz, emakumeentzat egokiak zirela usten zen probetan besterik ezin izan zuten parte hartu (Salcedo, 1993); eta, 997 atletetatik 22 emakume aritu ziren bost kirolean: Belan, Croquetean, Ekitazioan, Tenisean eta Golfean (soilik azken biak izan ziren ofizialak) (Durántez, 2004).

San Luisen, 1904an, soilik emakume batek praktikatu zuen arku jaurtiketa, eta erakustaldi hutsa izateaz gain, gainerako modalitateetan emakumeen parte-hartzearen aurkako jarrera nagusitu zen (Macías, 1999).

Aitzitik, eboluziorako lehenengo gako unea Joko Olinpikoetako emakumeen parte hartzearen aitortza ofiziala izan zen, Londresen 1908 urtean (Korkostegi, 2015). Iritzi desberdinen eraginagatik sortutako liskarrak gelditzearen, Joko Olinpikoetako Komiteak patinaje, tenis eta arku jaurtiketaren erakustaldiak onartu zituen. Gatazkak gatazka, Estokolmon 1912an egin zen Olinpiadan, emakumeak onartua izatea lortu zuen igeriketa probetan (Salcedo, 1993). Horrez gain, James E. Sullivan emakume amerikarren parte-hartzearen kontrako mugimendu olinpikoaren liderretako bat 1914an zendu zenean, emakume amerikarrei ate bat ireki zitzaien olinpiadetan jokatzeko (Macías, 1999).

Bien bitartean, Coubertinek emakumeen kontra jarraitzen zuen, bere argudioa hiru faktore nagusitan oinarritzen zelarik: alde batetik, antzinako Greziar Joko Olinpikoen formatua emulatu nahi zuen; beste aldetik, emakume frantsesen kirol inplikazioa oso urria zen emantzipazioa berantiarragatik; eta, hirugarrenik, ariketa intentsuetan parte hartzen zuten emakumeek euren edertasuna suntsitzen zutela sinesten zuen (Hargreaves, 1994). Coubertin baroiak berak ere zera adierazi zuen ofizialki: “ni, neu, jokoetarako emakumeak hautatzearen aurka nago, erabaki hori nire borondatearen kontra hartu da” (Salcedo, 1993).

Egoera prekarioan zeuden eta ornamentu soila baina zerbait gehiago izateko aspirazioak zituzten emakume horien egoera prekarioak Alice Milliat izan zuen estimulu nagusi (Sentamans, 2010). Joko Olinpikoak kirolaren erakusleihu zirela ikusita, ezin zuen ulertu emakumeak bertan egon ezin izatea (Sainz de Baranda, 2013b). Emakumezkoen kirol egoera aldatzeko ahaleaginean, arraunlari frantses honek 1917. urtean Frantziako Emakumezkoen Kirol-elkarteen Federazioa (FFSF) eratu zuen (Sentamans, 2010). Handik lau urtetara, 1921ean, COIren politikaren aurrean, Europa eta Amerikako emakume talde batek Alice Miliat buru zutela, Monte Carlon kirol topagune bat prestatu zuten. Ekitaldi honetan emakumeen kirolarien nazioarteko mugimendua indartu zen eta Emakumezkoen Kirol-elkarteen Federazio Internazionala (FSFI) sortu zen (Hargreaves, 1994; Salcedo, 1993; Sentamans, 2010).

“Gizonentzako Jokoetan” izandako bazterketagatik eta errebindikazioei egindako jaramon eskasagatik, 1922. urtean lehenengo Emakumezkoen Joko Olinpiko modernoak ospatu ziren Parisen (Sentamans, 2010). Honen harira, lau urtean behin ospatzen joan ziren beste hiru abagunetan: Gothenburgen (Suecia), 1926an, hamar herrialderen parte-hartzearekin; 1930ean Pragan (Txekoslovakia), 17 herrialderen parte-hartzearekin; eta, azkenik, 1934an Londresen, 19 herrialdek esku hartu zutelarik (Hargreaves, 1994).

Bitartean, 1924ko Joko Olinpikoetan emakumeari berriro debekatu zitzaion parte hartzea. Baina emakumeen Olinpiadak arrakasta izugarria izaten ari zirenez, International Amateur Athletic Federation-ek (IAAF) FSFI bere gain hartu eta emakumezkoen kirol lehiaketak kontrolatzeko asmoa erakutsi zuen. Horretarako Amsterdamen 1928an emakumeen parte-hartzearen alde egin zuen bost modalitatetan, gertakizun honen kontrako presio handiarekin. Nazioarteko Komite Olinpikoak 1928. urteko Olinpiadetan emakumea barneratu edo ez bozkatu zuen, onarpenak irabazi zuelarik (Hargreaves, 1994; Sentamans, 2010). Joko hauen informeetan emaitzak distortsionatu ziren eta gertakizunak asmatu ziren emakumeak gutxiesteko asmoarekin. Ondorioz, hurrengo urteko COIren elkarretaratzean emakumeak berriro programatik ezabatzearen alde bozkatu zuen gehiengoak (Macías, 1999).

Aipaturiko Amsterdameko Olinpiadetan (1928) gimnasia, tenis eta igeriketaren kategoria femeninoak gehitu ziren eta atletismoko bost probetan ere emakumeen lehenengo parte-hartzea jazo zen. Aitzitik, “ez-femeninoak” ziren diziplinetan betoa mantendu zen emakumeentzat (Sentamans, 2010).

Gertaera guzti horien ondoren, FSFIk emakumeentzako kirol programa bat onartzeko eskatu zuen, baina ultimatum hau FSFIren amaiera izan zen; IAAF lortu baitzuen ondorengo Joko Olinpikoetako emakumeen lehiaketen kontrola. 1936an antolakuntza guztiz bereganatu; eta, emakumezkoen kirola eta parte-hartzea maila guztietan bultzatuko zutela agindu zuen IAAFak (Hargreaves, 1994).

Une horretatik aurrera emakume parte-hartzaileen zein parte hartzen duten modalitateen kopuru gorakada etengabea da (Lallana, 2005; Sainz de Baranda, 2013b).

Beste momentu erabakigarri bat Emakumea eta Kirolaren Munduko lehen Konferentzia izan zen. Atlantako 1996ko Jokoen harira, Nazioarteko Komite Olinpikoak antolatu zuen emakumearen kirol munduko parte-hartzeari buruzko emateko asmoarekin eta 1997ko urrian burutu zen. Azken hogeita urteetan COIk emakumezkoen ekitaldiak areagotu ditu eta, gainera, 1991etik programa olinpikoan barneratzen diren kirol guztiek frogatu behar dituzte (Korkostegi, 2015).

Amaitzeko azpimararratu behar da Atenasen 1896an jokaturiko lehen Joko Olinpikoetatik, non ez zen emakumeen parte hartzerik egon, Londresen 2012an jokaturikoetara eboluzioa egon dela. Horren adierazle da azken Olinpiada hauek "emakumeen Jokoak" izendatuak izatea (Korkostegi, 2015). Olinpiada hauetan parte-hartzaileen %44a emakumezkoena izan da, eta lehen aldiz, 204 herrialdeek euren taldeetan emakumeak zeuzkaten (Macías, 1999). Kirol-lehiaketako alorrean genero berdintasuna lortzeko bideak goranzko tendentzia duela eztaba daezina da, baina oraindik ere helmuga asko gainditu behar dira berdintasunaren lasterketan. Lau urtean behin, Joko Olinpiko berriekin aurrerapen txikiak eman dira egungo egoerara iristeko, eta horri esker, etorkizuneko garaipenerako esperantzak piztuta jarraitzen du (Korkostegi, 2015).

1.3. Emakumezkoen kirola gaur egun: Egina (Eta egiteke dagoena)

Kirola eta kirol jarduerak nazio bakoitzeko kulturaren aspektu esentziala dira, baina, munduko populazioaren erdia emakumezkoa izan arren, kiroleko parte-hartze portzentajea beti gizonezkoena baino baxuagoa da. Parte-hartze murriztago honen kausa historian zehar kirola emakumeentzako sektore debekatuenetako bat izan dela da (Sainz De Baranda, 2013b). Hala ere, pertsona guztien eskubideak errespetatzen dituen eta aukera berdintasunean aurrera egiteko ekintzak bultzatzen diren egungo gizarte batek ezin du kirol

jarduera eskusiboki gizonena den espazio bezala onartu (Gallego eta Estebanz, 2005).

Goi mailako emakumezko kirolariak barne gatazka ugari jasan behar izan ditu kirolerako zaletasuna eta hartan saiatzea ez baitzatorren bat garaian garaiko emakumezkoen ematen zitzaizkien eginkizunekin. Sarritan, emakumezko kirolaria aukera egin beharrean egokitu da; eta, kirolera dedikatzea hautatzen baldin bazuen, gizarteak gaitzetsi zezakeen. Zama guzti horrekin, txalogarriak dira kirolaren eremuan berdintasunari ateak ireki dizkioten emakumeak, historiaren joerari eta gizartean nagusi ziren irizpideei aurre eginez onartuak eta errespetatuak izateagatik. (Salcedo,1993)

Ikusirik emakumeak gizonak behartuta izan duen menpekotasun historikoa, joko eta kirol arloan ere azaldu dena, ez da harrizkoa emakumea lehenengo egoetatik atera eta gizonak beretzat hartuta zituen esparruak okupatzea iraultzat kontsideratzea, ez bakarrik gizarte eta lan munduan, baita kirol arloan ere (Salcedo,1993).

Gaur egun, oraindik, emakumezkoen kirola gizonezkoenak duen balio soziala lortzetik urrun dago, errefortzu sozial zein ekonomikoan ikus daitekeen gisan (Vázquez, 2001); eta emakumezkoen kirola profesionaltzat ez estimatzeak ez du batere laguntzen. (Gallego eta Estebanz, 2005). Horretara, gaur egungo diskriminazioa alboratzeko lana egin behar da ardatz desberdinetan. Hezkuntzaren alorra emakumeak kirol munduan barnerako sentsibilizazio eta hausnarketa elementua izan behar da, baita gizonen eskubide eta aukera berak lortzeko borrokatzeko eremua ere. (Puig i Barata eta Soler Prat, 2004).

Hala ere, onartu behar da, gaur egun emakumezkoen presentzia kirol munduan errealitate bat dela. Parte hartze arazo bat izatetik haratago, arazoa onarpen sozialean dago, baita kirolaren goreneko esferetara iristeko aukera berdintasunetan ere. (Gallego eta Estebanz, 2005).

Azpimarratu behar da emakumezkoen partaidetza nazio baten modernotasunaren erakuskari soziologikoa izan daitekeela, baita egiazko demokrazia eta eskubide berdintasunarena ere. Nazio bat modernoa dela esateko sexismoaren tabuak desagertu behar dira, normalean gizonezkoek praktikatzen duten edozein kirol egin nahi duten emakumeenganako inolako bereizkeriarik gabe. Oraindik ere oso urrun gaude modernotasun horretara iristeko, baina mentalitatea aldatuko duen hazia ernatu da eta gizartearen balore eta ohituren aldaketaren abiatu da (Salcedo,1993):

Kiroleko genero berdintasunera bidean Europan jarduera eta estrategia ugari garatu dira; horien artean lehenengoetarikoa Kirolaren Europar Konferentziak “Emakumea eta Kirolaren Lan Taldea” eratzea izanik. 1991. Urtean ospatu zen Oslon eta 1994ko “Emakumea eta Kirolaren Brightongo Aitortza” izan zuen ondorio. Ordutik aurrera aitortzaren helburu nagusia kirolaren orientabide guztietan emakumearen parte-hartzea baloratu eta onartzeko kirol-kultura garatzea izan zen (Gallego eta Estebanz, 2005).

Handik bi urtetara, 1996an, Lausanan Emakumea eta Kirolaren lehenengo konferentzia mundiala ospatu zen eta kirola eta emakumearen alorrean lortutako aurrerapenak ebaluatzeaz gain, emakumezkoen lidergoa bultzatzeko politikak definitu ziren (Sainz De Baranda, 2013b).

1998an Emakumea eta Kirolaren II Konferentzia Mundiala ospatu zen Namibian, “Windhoek Ohartaraztea” bezala ezagutua. Bertan emakumeari eragiten zioten organismo eta antolakunde guztien kooperazio eta koordinazioaren beharraz hitz egin zen (Gallego eta Estebanz, 2005).

III Konferentzia 2002an Kanadan izan zen eta Lan Talde Internazionalak “1998-2002 aurrerapen Txostenean” islatzen dira bere emaitzak (Gallego eta Estebanz, 2005).

Jordanian ospatu zen IV konferentzia 2008an, eta bertan akzio plan bortitzagoa prestatu zen, zeinetan komunikabideen papera gogorarazi zuen genero berdintasunaren bidean (Sainz De Baranda, 2013b).

2012ko V edizioan Los Angelesen 121 herrialdetako 700 delegatu bildu ziren. Erabateko adostasunez “Los Angeleseko Aitortza” onartu zuten, genero promoziorako, kiroleko berdintasunerako eta emakumezkoen bizia kirol bidez hobetzeko gomendio batzuekin. Aitortza bi gai nagusitan oinarritu zen: emakumea kudeaketa eta lidergo alorrera barneratzea; eta, genero berdintasuna bultzatzeko asoziazioekin elkarlaneko jarduera areagotzea (Sainz De Baranda, 2013b).

Ekintza guzti hauek agerian uzten dute emakumea eta kirolaren gaia maila nazional zein internazionalen lantzen ari dela eta organizazio askoren esfortzua batzen duela. etorkizunean progresioa espero den arren, eta kirolean emakumezkoen parte-hartzeak gorakada jasan duen arren, aisialdi zein lehiaketa mailako zenbait aspektutan diskriminazioa errealitatea da oraindik (Gallego eta Estebanz, 2005).

Positibo izatera deitzen duten bultzada hauen atzean errealitate gordinagoa ezkututzen da: gaur egun ere, oraindik emakumeen inplikazioa kirolean gizonezkoena baino askoz txikiagoa da. Emakumezkoen kirol profesionalak espektakulurik sortzen ez duen eragozpena dago (Korkostegi, 2015).

Hala ere, aztertu daiteke marko juridikoan zein ezagupen aldetik, emakumeari kirolean ematen zain trataera interes eta inbestigazio lerro bat dela (Romero, 2008):

Europako Konstituzioan (2004), zehazki V kapituluko 5. sekzioko 282 artikuluan, Batasunaren helburuen artean kirolaren dimentsioa garatzea eta berdintasuna sustatzea agertzen dira (Alfaro, Bengoechea eta Vázquez, 2010).

Kirolaren Karta Europearrak (1992) gizarte eta populazio osoari zuzendutako kirol praktika bermatzeko beharra biltzen du. Eta, gainera, errendimenduko kirolaren sustapenerako gomendioa ere egiten da 7 eta 8 artikuluetan. Baina, dokumentu honen artikuluetan ez zaio zehazki emakumeari erreferentziarik egiten (Alfaro, Bengoechea eta Vázquez, 2010; Romero, 2008).

Espainiako konstituzioak (1978) berdintasun eta ez-diskriminazio oinarriak zehazten ditu eta botere publikoek askatasun eta berdintasuna errealak eta efektiboak izateko baldintzak sustatzeko beharra dutela adierazten du. Bestalde, 43.3 artikuluan botere publikoak kirola sustatzera behartzen ditu (Alfaro, Bengoechea eta Vázquez, 2010; Romero, 2008).

Beste bi nazioarteko dokumentu garrantzitsu Helsinkiko Informea (1999) eta Nizako Aitortza (2000) dira. Lehenengoan, kirolean eragina duten oinarri garrantzitsuak aipatzeaz gain, erreferentzia zehatza egiten zaio emakumeek kirol alorrean duten egoerari. Bigarrenak “kirol jarduera pertsona guztiei iristeko moduan eskaini behar dela, bakoitzaren gaitasunak errespetatuz eta praktika aniztasunarekin” azaltzen du (Alfaro, Bengoechea eta Vázquez, 2010; Romero, 2008).

Karta Olinpikoaren 2. artikuluko 5. paragrafoan helarazten da Nazioarteko Komite Olinpikoak (COI) “estruktura eta maila guztietan emakumezkoen kirol promozioa estimulatuko duela baliabide egoki guztien bidez; sexu berdintasun printzipioari jarraiki” (Alfaro, Bengoechea eta Vázquez, 2010; Romero, 2008).

Kirolaren 10/1990 Legearen 6. artikulua goi-mailako kirola estatuaren interesekoa dela adierazten du, baina ez du emakumea eta kirolaren inguruko aipamen zehatzik egiten, adibidez, Andaluziako Kirolaren 6/1998 Legeak 3. artikuluan egiten duen gisara. Bertan zera adierazten da: “kirol sustapenak atentzio berezia eskainiko die haur, gazte, emakume, hirugarren adineko zein urritasunen bat duten pertsoneri” (Alfaro, Bengoechea eta Vázquez, 2010; Romero, 2008).

Europar Parlamentuak, bere aldetik, emakumea eta kirolaren inguruan helburu batzuk ezartzen ditu (A5-00167/2003). Jomuga horien artean eskola kiroleko parte hartzea bultzatzea, lehiaketetan eskubide berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzea, emakumeen osasuna babestea eta erabakiak hartzean emakumeen parte-hartzea sustatzea daude (Alfaro, Bengoechea eta Vázquez, 2010; Romero, 2008).

Bestalde, Nazioareko Komite Olinpikoak (COI) ere kirolean genero berdintasuna bermatzeko hitza eman du. 2011ko Karta Olinpikoak COIren betebeharren artean “gizon eta emakumeen arteko berdintasun oinarria ezartzeko asmoarekin, kirolean emakumearen promozioa sustatu eta laguntzea” ezartzen du (2. artikulua, 7. paragrafoa). Bere konpromisoa Joko Olinpikoetan emakumeen parte-hartzea areagotzetik haratago doa, kirol kudeaketako alorrean zein haur eta gazteen maila eta estruktura guztietan promozioa landu nahi (Sainz de Baranda, 2013b).

Amaitzeko, kongresu, jardunaldi, komisio zein instituzio gehiago existitzen dira emakumea eta kirolaren gaia lantzen dutenak: COI-ren konferentziak, Espainiako Komite Olinpikoaren Emakumea eta Kirolaren komisioa, Emakumea eta Kirolaren Europar konferentziak, Emakumea eta Kirola jardunaldi nazionalak, etab. guztiak Autonomia Erkidegoen inizatiba desberdinekin osaturik (Alfaro, Bengoechea eta Vázquez, 2010; Romero, 2008).

2. Emakumezkoen kirola egunkarietan:

2.1. Egunkarien garapena emakumezkoen kirola lantzen:

Historian zehar emakumeak kirol praktikan bizi izan duen egoera gaur egun komunikabideengandik jasaten duen trataerara estrapolatu daiteke, horiek baitira eliteko kirolean jasaten duten diskriminazioaren eragile (Romero, 2008).

Garai batean emakumezkoen kirolean zegoen maila baxuak instituzioek garrantzirik ez ematea eragin zuen, baita enpresa eta komunikabideen alboratzea ere. Hala ere, panorama triste honen aurrean, atletismoan eta igeriketean lortutako garaipen batzuk hobekuntza eragin zuten emakumezkoen kirolarekiko interesean eta lehenengo aipuak agertzen hasi ziren prentsan, batez ere kirol alorrekoan. Berri txiki hauek azken orrialdetan argitaratzen hasi ziren, betelan moduan, baina gaur arte handitzen, garrantzia irabazten eta areagotzen joan dira. Orain, emakumea kirol egunkarietara eta gainerako egunkarien kirol sekzioetara gerturatu da, geroz eta interes gehiago piztuaz, baina, hala ere, oraindik ere gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak nabariak dira (Hernández, 2003). Izan ere, goi-mailako lehiaketetan generoen

arteko parte-hartzea orekatua dago eta, berez, komunikabideek goi-mailako kirol hori islatzearen ardura dute. Baina, aspektu honetan, parametro mugatzaile bat ageri da: kirolaren interes soziala, interes hau esparru maskulinora mugatzen delarik (Angulo, 2007).

Dударик gabe, kirola XXI. mendeko diru-industria bilakatu da komunikabideen eraginari esker. 20. eta 30. hamarkadetako egunkari eta irratiaeren garapenak kirol berriaren hedapena eta gertaeren zabalkunde azkarra erraztu zuen. Kazetariak kirola eta euren komunikabidea bultzatzeaz gain, kirol lehiaketak edertu eta heroiak sortzen zituzten; gutxika, kirola eta komunikabideen arteko kidetasuna eraginez (Gutiérrez, d.g).

Kirol praktikaren eremuan aurrerapen asko lortu dira, bai lehiaketa mailan eta baita aisialdi mailan ere. Baina, entrenamendu bide eta aukera gehiago dauden arren, komunikabideetan protagonismo gehiago behar du emakumeak (Romero, 2008). Izan ere, atletak komunikabideentzako mediatiko bilakatzeko errekor, azaña eta lorpen handiak egin behar izan dituzte (Lallana, 2005). Azken urteetan, kirol femeninoaren gorakadaren eta protagonismoaren eraginez, bi sexuen kronikek geroz eta antza gehiago dute, baina, hala ere, oraindik emakumezkoen kirolak bigarren mailan daude prentsako kirol orrialdeetan eta azken orrialdeetan agertzen ez direnean, azaldu ere egiten ez direlako da (Hernández, 2003).

Sozialki errendimenduko emakumezkoen kirolak espektakulurik sortzen ez duela interpretatzen da, baina hau ez da egia. Estatu mailan kirol femeninoaren jarraipena txapelketa garrantzitsuetan soilik egiten dute komunikabideek, baina hala ere, herrialde askotan kontzientzia soziala dute bai gizon bai emakumezkoen kirol espektakuluek (Romero, 2008).

Emakumezkoen kirolarekiko diskriminazio hau aldatzeko inizatiba ugari jarri dira martxan eta hauen artean Europako Parlamentuarena da azpimarragarri. “Emakumearen Eskubide eta Aukera Berdintasunen Komisioa (2003)” baliatuz, parlamentuak jarraibide batzuk zehaztu zituen eta hauen artean komunikabideen alorra ere jorratzen da. Bertan, hedabideek kirol femenino eta

maskulinoaren arteko kobertura orekatua ziurtatu behar dutela esateaz gain, estatu guztiek emakumezkoen kirol lehiaketak eman eta prentsan azaltzeko beharra dutela argitzen da (Romero, 2008).

Honez gain, Australia, Kanada eta EE.BB.etan gai hau lantzeko eta aldaketak lortzeko esfortzuak eraman dira aurrera. Bere aldetik, Frantziak emakumezkoen kirolari kobertura hobe eta zabalago bat lortzeko bidean, esparru hau landutako komunikabideei sariak eman dizkie (Angulo, 2007).

Bestalde, Estatu mailan, 2006ko Ekainak 21ean, Senatuak emakume kirolarien emanaldiak sustatzearen alde egin zuen, Berdintasun Legea onartuz 2007ko martxoaren 22an, III. Titulua “Berdintasuna eta Komunikabideak” izanik (Angulo, 2007). Emakume eta gizonen berdintasun efektiborako 3/2007 legeak komunikabideek emakumezkoen kirolari eskainitako laguntza potentziaztea du helburu. Emakumeen elitezko kiroleko errealitatean aurrerapenak lortu diren arren, komunikabideetan ez dago berdintasunik (Romero, 2008). Gainera, komunikabideetan emakume kirolarien presentzia areagotzeko ekintza guztiak gizartearen sentsibilizazio prozesu batetik iragaten dira, baita komunikabideetan lan egiten duten profesionalen sentsibilizaziotik ere (Angulo, 2007).

Beraz, ondorioztatu daiteke komunikabideek kirol eta kirolarien jarraipena faktore batzuen arabera egiten dutela: kirola espektakulotzat har daitekeen bere horretan, komunikabidearen herrialdearen errepresentazioa dagoen, kirol horretan herrialdeko kirolariek arrakasta duten eta ekitaldia herrialdean jazotzen den. Faktore hauexek eragiten dute egungo emakume kirolarien egoera eta kontuan hartu behar dira egoera hobetu nahi izan ezker (Angulo, 2007).

Oraindik ere emakumearenganako prozesuak mantso dirau ez delako “kirol kultura femeninoa” existitzen. Kultura hau sortzea beharrekoa da emakumezko kirolariak berezko identitatea izateko gizonezko kirolariekiko. Eta kirol komunikazioaren trataeran “bigarren mailako protagonista” izateari uzteko prozesu honetan, komunikabideek berebiziko garrantzia dute. Izan ere, gaur

egun balantza alde negatibora desorekatzen da: emakume kirolariak komunikabideetan ikusezinak dira oraindik ere (Korkostegi, 2015).

Amaitzeko, gehitu behar da komunikabideetan emakume kirolarien eta emakumezkoen kirolaren presentzia eskasak modelo femeninorik ez egotea eragiten du, eta honekin bat haur eta gazteek ez dute kirol praktikan identifikaziorik ez izan eta jarduera fisiko gutxiago praktikatzea (Korkostegi, 2015).

2.2. Egunkarien emakumezkoen kirolarekiko jokaera ikertuz:

Kirol informazioaren tratamenduaren inguruko ikerketek salatzen dutenez, edukiek emakumeei garrantzia kendu, estereotipoen areagotu eta emakume kirolarien errepresentazio murrizta izaten dute (Fink eta Kensicki, 2002; Sainz de Baranda, 2013a), eta ez du axola komunikabidea arlo orokorrekoa edo kirol arlokoa den, bietan emakumea desabantaila nabarian baitago gizonekiko, batez ere estatu mailan (Fernández Ramos, 2014).

Emakumea eta komunikabideak zein emakumea eta kirolaren inguruko produkzio zientifikoa egon badagoen arren, emakume kirolaria eta kirol hedabideak uztartzea gutxitan izan da ikerketa espezifiko baten objektu (Fink eta Kensicki, 2002). Izan ere, komunikabideek eta bereziki kirol komunikabideek emakumezkoen kirol praktikaren aspektu batzuk ez dituzte era osatuan erakusten eta honek emakumezko kirolariak baloratzerako unean publikoaren iritzian eragina du (Coakley, 2004). Honen bidez eskoletara iristen den kirol praktikaren bertsioa maskulinizatua dagoela detektatu da, protagonista maskulinoekin, eta honek neskek euren formazio garaian kirol erreferente femeninorik ez izatea eragiten du (Ibáñez, 2001). Gainera, emakumeak komunikabideetan bidezko eran ordezkatzuta ez daudela gehitzen bazaio, neskek ez dute emulatzeko beharrezko adibide nahikoa (Cunningham, Sagas, Satore, Amsden & Schellhase, 2004), eta ondorio bezala, etorkizuneko kirol praktikan parte-hartze femeninoaren beherakada gerta daiteke (Pedersen, 2002).

Genero eraikuntzaren eta honek soziologiarekin duen erlazioaren inguruan batez ere Estatu Batuetan egin diren ikerketak dira aipagarriak. Lehen ikerketek euren lana kirol soziologiaren eta generoaren arteko harremanaren azterketan oinarritu dute; eta, batez ere telebistek eskainitako estaldura aintzat hartzen den arren, kirol informazioko emakumearen presentzia eta irudiek transmititzen duten irudia analizatzeko orduan erreferentziazko lanak dira (Duncan eta Messner, 2000).

Estatu Batuetan bertan, prentsa idatziaren inguruko ikerketa zehatzak ere egin dira eta argitalpenen generoaren eraikuntza analizatu da, irakurlearen gehiengoa emakumezkoa den *Sports Illustrated* eta *Sports Illustrated for Women* aldizkarietan kasu. Azpimarratzen denaren arabera, emakumezko atletak gizonezkoengandik bereizten dituen lehenengo kasuan garaipen atletikoen gainetik estereotipoak eraikitzeke istorioak eta edertasun fisikoa lehenesten direla da (Fink eta Kensicki, 2002). Estatu Batuekin amaitzeko, bertako zein Espainiako egunkari digital bidez transmititzen diren modeloen azterketan azpimarratzen da emakumeen berri bakoitzeko gizonezkoen hamabost berri daudela (Frideres eta Palao, 2006).

Estatu mailan jarraiki, kirol egunkari eta prentsa orokorraren inguruan egindako analisi batek ematen dio hasiera 2000. urtetik aurrera emakume kirolarien eta komunikabideen inguruan landutako ikerketei eta bertan emakume kirolariak informaziotik sistematikoki alboratuak direla ondorioztatzen da, eta alboratuak ez diren kasuetan erreferentzia eskasak denboraz kanpo ematen dira. Gainera, publikazio hauetan erakusten den emakumearen irudia informazioari dagokion kategoriarengandik oso urruti dago (Gómez-Colell, 2015).

Bestalde, zehazki kirol prentsan egindako analisiak ere badaude eta bertako emaitzak ez dira beste esparruetan baino hobeak. Datuak aipagarriak dira, izan ere 2007ko berrien %8,61an dira emakumeak protagonista, gainerako %91,39an gizonezkoak direlarik; eta irudiei dagokionez 1586 argazkitatik %7a soilik ziren emakume kirolarienak (Angulo, 2007).

Portzentajeekin jarraituz, komunikabide gehienentzako emakumezko kirolariak ez du protagonista edo informazio iturri izateko kategoria nahikoa. Azken 30 urteetan, emakumea kirol alorrean “gonbidatu” bezala agertzea areagotu da, 1979 urtean %30 izatetik 2010ean %48 izatera igarota. Areagotze hau emakume kirolaria ikusaraztea handitzearekin bat eman da, baina estatu mailako kirol prentsan emakumezkoen errepresentazioa gizonezkoenarekiko oso desorekatua dago (Sainz de Baranda, 2013a).

Desoreka hori urteen joanean ere mantendu da, izan ere, 2000 urtetik aurrea informazio sektore guztietan igoera orokorra garatu da, baina kirol informazioaren kasuan beherakada eman da. 2000. urtean emakumezkoak soilik kirol berrien kasuen %9an izan bazen berria, 2005ean %16ra arte igo zen ondoren 2010ean berriro %11ra jaisteko (Gómez-Colell, 2015). 2013. Urteko portzentajeetan ere gauza bera gertatzen da, emakumea kasuen %5,11ean bakarrik da berriaren subjektu, gizona kasuen %92,24n den bitartean. Portzentaje honek urteekin aldatzen joan beharko luke, baina oraindaino ez du aldaketarik jasaten (Sainz de Baranda, 2013b).

Bestalde, komunikabideek sortu eta erreproduzitzen dituzten estereotipoen inguruan, ikerketen arabera edertasunaren estereotipoa da gehien ageri dena, baina erreferentzia sexistak ere aurkitu daitezke kirol lorpenak atributu fisikoen maila berean jartzen direnean. Bestalde, egoera sentimental eta bizitza pertsonalak azaltzea estereotipo bilakatzen dira, baita kirolak sistematikoki maskulino edo femenino bezala sailkatzea ere (López Díez, 2011).

Gainera, aipaturiko estereotipo bakoitzerako gomendio multzo bat ere biltzen da, emakumeek praktikaturako kirola ikusarazteko helburuarekin. Horregatik, beharrezkoa da emakume kirolariaren irudia hobetzeko presentzia mediatikoa kuantitatiboki areagotzea, honek berdintasunezko tratamendua bermatzen ez duen arren. Horregatik, berria lorpen edo jardunaldietan bakarrik zentratzea garrantzitsua da, genero femeninoaren ezaugarri bilakatu daitezkeen erlazio estereotipatuak alboratzeko (López Díez, 2011).

Autonomia mailan amaitzeko, hemen ere ikergaiaren inguruko ikerketak egin dira. Momentura arte azaldutako panorama berdina eskaintzeaz gain, ideia garrantzitsu bat gehitzen da: kirolaren irudia zuzenean lehiaketa maskulinoarekin erlazionatzen da gure gizartean. Hala ere, pertzepzio orokorrak emakumezko kirolarien inguruko errepresentazioan hobekuntzarik islatzen ez duen arren, azken ikerketa honetan komunikabideak duten ardura nabaritu daiteke, lehiaketako kirola praktikatzen duten emakumeek dituzten traba eta zailtasunak ikusten baitira (ASPIC-Comunicación, 2013).

Ikerketek adierazi dute normalean kirol informazioan gizonezkoetan zentratu eta emakumezkoa alboratzen dela, publikatzeaz arduratzen diren pertsonen, normalean gizonen, interesa pizten duen berri bat izan ezean. Honekin estereotipoak indartu eta genero rolak bermatzen ari dira (López Díez, 2011). Kirol komunikabideetan dagoen emakumeen presentzia da kirol munduan lantzeke dagoen gai bat, izan ere, kirol hizkerak ez du emakumeak duen papera errespetatzen kirolean, eta oro har gizartean. Gainera, estereotipo maskulino eta femeninoen presentzia amaiezina da, zeinetan lengoia sexista etengabea den (Gutiérrez, d.g).

METODOLOGIA

1. Edukien analisia

Gipuzkoako egunkarietan 2015. urtean emakumezkoen kirolari ematen zaion abagunea eta irudia aztertzeko edukien analisia burutu da. Anlisi mota hau komunikazio produkzioak (mezuak, testuak edo diskurtsoak) interpretatzeko prozedura multzoa bezala definitzen da eta helburua testuan sortu diren edo geroago erabiltzeko izan daitezkeen baldintzei buruzko datu esanguratsuak ateratzea eta prozesatzea da. Eduki analisiak hitzezko adierazpenekin (ahozko edo idatziak) egiten du lan funtsean, nahiz eta beste adierazpen modu batzuk ere aztertzen dituen, haien artean irudiak (Ariño, 2009). Kasu honetan, egunkarietako kirol alorrean kokatuta dauden berri edo edukien emakumezko kirolaren aipamenaren kopuru esanguratsuak atera eta testu hauek zein argazkiek eskaintzen duten emakumezkoen irudia zein den prozesatu da, hitzezko adierazpenak eta irudiekin lana eginaz.

Edukien analisi hauek neurtzeko tekniken arabera azterketa kuantitatiboak edo kualitatiboak izan daitezke, baita bi teknikak baliatu eta mistoa izatea ere, honako analisi hau kasu; bertan emakumezko kirolariek egunkarietako kirol berrietan duten presentzia kuantitatiboki neurtu baita eta, aldi berean, berri hauen itxura zein irudia (bai berriarena baita argazkiena, egoteko kasuan) kualitatiboki aztertua izan baita.

Esan behar da metodologia kuantitatiboak datuak zenbakizko eran aztertzeari ahalbidetzen duela, batez ere estatistikako alorrean datuak ateratzea ahalbidetuz. Ikerketa honetan kirol berriak zein emakumezkoen aipua egiten den kirol berriak aztertu dira berrien kopuruak (zenbakiak) ateraz eta portzentaje estatistikoak lortuz, emaitza horiekin ondorio zehatz batzuetara iristeko asmoarekin. Beste aldetik, ikerketa kualitatiboak errealitatean sakoneko izaera identifikatzea du helburu, estrukturak eta erlazio sistemak aztertuz. Ikerketa honetan arestian aipaturiko berrien izaerak ezagutu eta komunikabideek emakumezkoen kirolarekiko duten izaera identifikatzeko, errepikatzen diren patroik komunak katalogatu dira.

2. Lagina

Eusko Jaurlaritzaren *Azterketa Soziologikoaren Kabineteak* aurkeztutako komunikabideen inguruko ikerketaren arabera, Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa eta Gara dira sailkapen orokorrean agertzen diren lehenengo hiru egunkari gipuzkoarrak, beraz, hauek dira Gipuzkoako egunkari nagusienak (Gabinete de Prospeccion Sociológica, 2012). Hori kontuan hartuz, eta Gipuzkoa mailara mugaturiko ikerketa denez, esan gabe doa ikerketa honen lagina hiru prentsa orokorreko egunkari hauek osatzen dutela.

Laginak 2015. urteko egunkarien analisi bat aurrera eramatea ahalbidetu behar duenez, urte honetako hamabi hilabeteak hartu dira aintzat. Horrez gain, hilabete bakoitzeko egun guztiak analizatzeko ezintasuna dela eta, lagin hautaketa bat egin eta hilabete bakoitzeko lau egun analizatu dira, hots, hilabetearen aste bakoitzeko egun bat.

Lau egun hauek zehazteko kontuan hartu da urteko kirol ekitaldi gehien asteburuetan ospatzen direnez, asteburu zein hurrengo astearen lehen egunetan plazaratzen direla kirol berri gehien, batez ere larunbatetako jarduerenak igandeetan eta igandekoak astelehenetan. Horregatik, lau egun hauek lehenengo astearen igandea, bigarren astearen astelehena, hirugarren astearen igandea eta laugarren astearen astelehena izan dira.

Guztira egunkari bakoitzeko 48 egunetako aleak zenbatu eta aztertu dira, guztira hiru egunkariak gehituz 144 egun ikertuz. Honako hauek dira analisisa egiteko aztertu diren hiru egunkarien hilabete bakoitzeko egunak:

Urtarrila	4 – 5 – 18 – 19
Otsaila	8 – 9 – 22 – 23
Martxoa	8 – 9 – 22 – 23
Apirila	5 – 6 – 19 – 20
Maiatza	10 – 11 – 24 – 25
Ekaina	7 – 8 – 21 – 22

Uztaila	5 – 6 – 19 – 20
Abuztua	9 – 10 – 23 – 24
Iraila	6 – 7 – 20 – 21
Urria	4 – 5 – 18 – 19
Azaroa	8 – 9 – 22 – 23
Abendua	6 – 7 – 20 – 21

3. Tresnak

Analisia aurrera eramateko erabilitako tresnak oso sinpleak izan dira, eta analisi motaren arabera bi multzotan sailka daitezke, analisi kuantitatiboa egitekoa eta kualitatiboa burutzekoa.

Alde batetik, analisi kuantitatiboa egiteko erabilitako tresna Microsoft Excel 2010 programa informatikoa izan da. Bertan, eragiketa matematikoak eta estatistikak egitea ahalbidetzen da eta lan honetarako benetan tresna baliagarria izan da, grafikoak egiteko eta emaitzak ikusgarriago egiteko baliagarri izan baita.

Beste aldetik, analisi kualitatiborako egunkariei argazkiak ateratzeko argazki-kamera erabili da, zehazki Canon EOS 400D reflex digitala. Honen bidez berriei argazkiak atera zaizkie eta gero patroiak ateratzeko ahalbidetu da.

4. Prozedura

Ikerketa burutzeko prozeduraren lehen urratsa lehen aipaturiko egun bakoitzeko hiru egunkariak esku artean izatea izan da. Horretarako Lasarte-Oriako Udal Liburutegiko hemerotekara jo eta bertan hilabeteka eta egunkarika banatuta dauden aleen artean beharrezkoak hartu eta pixkanaka irakurtzen eta analizatzen joan da.

Egunkari bakoitzaren kirol alorrera jo eta bertako kirol berri guztiak zenbatu eta eginiko Excel taulan kopurua sartu ondoren, ekintza bera errepikatu da emakumezkoen kirolaren inguruko berriein edo emakumezkoen aipua egin denekin. Ondoren, berri horiek egunkarien orri erdiko tamaina baino handiagoa duten ikusi da eta hori ere taulan islatu da.

Ekintza guzti hauekin, egun bakoitzeko hiru egunkariekin gauza bera egin ondoren, taulan egun bakoitzeko portzentajeak, hilabeteko portzentajeak, egunkariko portzentaje totalak eta hiru egunkarien baturaren portzentajeak atera dira, analisi kuantitatiboa egiteko.

Bestalde, berri hauei argazkiak atera zaizkie, analisi kualitatiborako guztiak batera eduki eta argazkiak ikusiaz ematen den irudi eta trataera ateratzeko.

Guztira ia 700 argazkia atera dira eta hauen artean ezaugarri komunak dituztenak multzokatu dira ondoren ondorioak ateratzeko.

Honako hau da arestian aipaturiko Excel taula hori betetzeko txantiloia:

2015	DIARIO VASCO					GARA					NOTICIAS DE GIPUZKOA					TOTALAK				
EGUNAK	kirol berriak	horietatik emak.	orri-erdi baina gehiagoko berria	%	hilabeteko %	kirol berriak	horietatik emak.	orri-erdi baina gehiagoko berria	%	hilabeteko %	kirol berriak	horietatik emak.	orri-erdi baina gehiagoko berria	%	hilabeteko %	kirol berriak	horietatik emak.	%	hilabeteko %	
Urtarrilak 4																				
Urtarrilak 5																				
Urtarrilak 18																				
Urtarrilak 19																				
Otsailak 8																				
Otsailak 9																				
Otsailak 22																				
Otsailak 23																				
Martxoak 8																				
Martxoak 9																				
Martxoak 22																				
Marxoak 23																				
Apirilak 5																				
Apirilak 6																				
Apirilak 19																				
Apirilak 20																				
Maiatzak 10																				
Maiatzak 11																				
Maiatzak 24																				
Maiatzak 25																				
Ekainak 7																				
Ekainak 8																				
Ekainak 21																				
Ekainak 22																				
Uztailak 5																				
Uztailak 6																				
Uztailak 19																				
Uztailak 20																				
Abuztuak 9																				
Abuztuak 10																				
Abuztuak 23																				
Abuztuak 24																				
Irailak 6																				
Irailak 7																				
Irailak 20																				
Irailak 21																				
Urriak 4																				
Urriak 5																				
Urriak 18																				
Urriak 19																				
Azaroak 8																				
Azaroak 9																				
Azaroak 22																				
Azaroak 23																				
Abenduak 6																				
Abenduak 7																				
Abenduak 20																				
Abenduak 21																				
TOTALAK																				

EMAITZAK

1. Emaidza kuantitatiboak: Presentzia

Egindako analisitik atera daitekeen lehenengo emaitza, eta esanguratsuena dena, 2015eko egunkarietan batz bestea emakumezko kirolarien berriak edota emakumezkoen aipua egiten den berriak ez direla %15 izatera heltzen. Beste era batera esanda, kirol informazioaren %86 eskusiboki gizezkoen kirol edo kirolarietan zentratzen da. Analizatutako egunetan hiru egunkarietako kirol arloan guztira 4971 kirol berri argitaratu dira eta horietatik 696 soilik dira emakumezko kirolarenak, zehazki %14a. portzentaje hau gainerako emaitzen erreferentziatzat hartu behar da, baina analisi orokor honetatik haratago, egunkari bakoitza indibidualki ikuskatuz ondorio berdinerara heltzen garela ikus daiteke.



1. Irudia: 2015. urteko kirol berrien banaketa (Neuk landua)

Hiru egunkarietatik kirol berri gehien publikatu dituen egunkaria Diario Vasco izan da 2074 kirol berriekin, baina aldi berean, berri horietatik gutxien izan dira emakumezkoen kirolaren ingurukoak, 231 notziarekin. Berri hauek totalaren %11,1 suposatzen dute, hau da, orokorrean hartuta baina emaitza baxuagoak dira, ia hiru puntu azpitik baitago, publikatutako emakumezkoen kirolaren batz bestekoa %2,9 gutxiago izanik. Gainera, 231 berri horietatik 38 soilik dira gutxienez orri erdiko tamaina dutenak, hots, emakumezkoen berrien %16,5a, gainerakoak berri txikiak edo aipamen hutsak izanik.

Beraz, esan daiteke Diario Vasco dela bi erpinak hartzen dituen egunkaria; alde batetik, kirolaren inguruko berri gehien plazaratzen dituen da, baina beste aldetik, emakumezkoen berrien ehuneko baxuena dituen.




2. Irudia: 2015. urteko Diari Vascoren kirol berrien banaketa (Neuk landua)

Gara egunkariari dagokionez, emakumezko kirolarien eta emakumezkoaren kirolaren inguruko berri gehiena dituen da. 2015. urtean 1358 kirol berri argitaratu ditu aztertutako egunetan eta emakumezkoen dagozkienak 267 izan dira, %19,7a. Orokorrean hartutako datuak baina emaitza hobekak dituen egunkari bakarra da hau, ia bost puntu gorago baitago ehuneko orokorretik. Deigarria den datu bat ere ateratu daiteke aldi berean, izan ere, arestian aipaturiko Diario Vascode baina berri gutxiago baditu ere, 716 kirol arloko notizia gutxiago, aurrekoak baino emakumezkoen kirolaren berri gehiago ditu.

Hala ere, Gararen kasuan ere berrien %70,3a gizonezko kirolaren edo kirolarien inguruan da; eta aipaturiko emakumezkoen 267 berrietatik, 68 dira gutxienez orri erdiko tamaina dutenak, hots, emakumezkoen berrien %25,5a.

Beraz, esan daiteke Gara dela emakumeak gehien aintzat hartzen dituen egunkaria, ehuneko oso baxua eta gainerako egunkarietara aldea oso murriztatzen den arren.



3. Irudia: 2015. urteko Gararen kirol berrien banaketa (Neuk landua)

Amaitzeko, Noticias de Gipuzkoa egunkariari dagokionez, bai kiroleko berri gutxien eta baita emakumezko kirolaren berri gutxien dituen da, 1539 berri eta 198 berrirekin hurrenez hurren. Bi datu hauekin, emakumezkoen kirolaren ehunekoa %12,9koa da, eta baxuena ez den arren, batz bestekoa datu orokorra baina baxuagoa da. Bestalde, emakumezko berrietan zentratuz, orri erdiko tamaina duten berrietan ere hiru egunkarien artean balore baxuenak ditu, 198 notiziatik 31 soilik izanik tamaina handikoa. Beste era batera esanda, emakumezkoen kirolaren edota kirolarien inguruko berrien %84,3a tamaina txikikoa da.




4. Irudia: 2015. urteko Noticias de Gipuzkoaren kirol berrien banaketa (Neuk landua)

Behin emaitza orokor guztiak aipatu eta egunkari bakoitzaren ezaugarriak azaldu ondoren, hilabeteetako garapena nolakoa izan den esatea ere garrantzitsua da. Datu orokorren kasuan, emakumezkoen kirol albisten portzentaje altuena duen hilabetea ekaina da, berri guztien %18,1a izanik emakumezko kirolarien ingurukoa eta gainera, ondoren ikusiko dugun bezala, egunkarietako grafikoetan ere gorakada nabaria da ekaineko hilabetean. Hala

ere, kontuan izan behar da portzentajeak behin ere ez direla iristen %20ko balioa gainditzera.

Beste aldetik, apirila da hilabete guztietan emakumezkoen kirol berrien inguruko portzentaje baxuena duena, batz besterik ez baita heltzen. Bestalde, harrigarria badirudi ere, hilabete berean daude portzentaje altuena eta baxuena dituzten egunak eta jarraian daude bata bestearengandik, azaroak 8 altuena eta 9 baxuena. %23,3 da analizatutako portzentaje altuena eta %5a portzentaje baxuena, bien artean 18,3 puntu daudelarik.

Emakumezkoen kirol edota kirolariaren inguruko berri gehien argitaratutako eguna irailak 7a izan da, guztira hiru egunkarien artean emakumezkoen 24 berrirekin. Beste aldean, emakumezko kirolarien albiste gutxien ageri diren eguna azaroaren 9a izan da, hiru egunkarien artean soilik 5 berri argitaratu baitira emakumezkoen inguruan guztizko 100 berrietatik, batz besterik ez dituen eguna izanik.




5. Irudia: 2015. urteko emakumezkoen berrien portzentajeak hilabetea (Neuk landua)

Diario Vascon abendua gailentzen da nabarmenki emakumezkoen kirol albisteen portzentaje altuena duen hilabetea bezala, berri guztien %15,3a izanik emakumezko kirolarien ingurukoa. Baxuena berriz maiatza da %8,2ean gelditzen baita emakumezkoen ingurukon kirol berrien portzentajea, analizatutako hilabetekako portzentaje guztietatik bigarren baxuena izanaz %0,1eko aldea badu ere balio baxuenarekin.

Egun zehatzak ikusi ezker, emaitza totaletan bezala azaroan dago Diario Vasco portzentaje baxuena, azaroak bederatzian %2,4koa izan baita emakumezkoen inguruko berri portzentajea. Egunkari hau zein besteak ikusita, azken datu hau da egun guztien artean balore baxuena. Portzentaje altuenari dagokionez, abenduak 6an aurki daiteke %21,4eko balioarekin eta egunkariko ehuneko hogeitik gorako balio bakarra da. Honi bigarren portzentaje altuena abenduko beste egun batean dagoela gehituz, beste hilabeteengandik zertxobait bereizten da; baina, hala ere, gainerako balio baxuekin batuz bestekoa eginda justu gainditzen du %15eko muga. Emakumezkoen kirolaren inguruan berri gutxien argitaratutako eguna azaroak 9a izan da, 40 kirol berritatik soilik berri bakarra baita emakumezkoari buruz hitz egiten duena. Beste aldetik, balore altuenak hiru egunetan (irailak 21, azaroak 23 eta abenduak 29an) errepikatzen dira, gehienez ere emakumezko kirolariaren inguruan 8 berri bakarrik argitaratuta.

Grafikoaren garapenari dagokionez, orokorraren antzerako hedapena du, ekaineko gorakada hainbestekoa ez den arren eta otsaila zein iraila gainerakoetatik gailentzen ez diren arren.




6. Irudia: Diario Vasco 2015. urteko emakumezkoen berrien portzentajeak hilabeteka (Neuk landua)

Gara egunkarian berriz, ekainean aurki daitezke emakumezkoen kirol albiste gehien, berri guztien %26,3a izanik emakumezko kirolariaren ingurukoa. Hilabete hau da emakumezkoen inguruko kirol berrien portzentajea kirol berri totalen laurdena baino altuagoa den hilabete bakarra, bai egunkari honetan eta baita

besteak kontuan hartzen badira. Baxuena berriz uztaila da %12,4ko portzentajea baitu emakumezkoen ingurukon kirol berriak. Hala ere, azpimarragarria da Gararen portzentaje baxuena eta aurretik azalduta Diario Vascoren portzentaje altuena puntu bakarrera egotea, desorekaren adierazle baita. Hala ere, esan behar da gararen ehuneko baxuena beste bi egunkarien hilabete asko baino altuagoa dela, kasu honetan ehunekoak hilabete guztietan heltzen baitira %10era, beste bi egunkarietan gertatzen ez den bezala.

Egunetako analisira pasata, emaitza totaletan ez bezala, abuztuaren 24ean dagoen %3,4 da argi eta garbi Gararen emakumezkoen kirolaren berri gutxien ageri den eguna. Datu deigarria da %5etik bera dagoen balio bakarra delako eta azterturiko ondorengo bi egunetan zortzi aldiz altuagoa delako emakumezkoaren kirolari emandako garrantzia. Hala ere, bi egun hauetakoa ez da portzentaje altuena, izan ere, ekainak zortzian %34,5ekoa izan da emakumezko kirolaren edota kirolarien inguruko berrien portzentajea, egunkari guztiak zein emaitza totalak kontuan hartuz lortutako ehuneko altuena. Emakumezkoen berri gutxien argitaratutako eguna abuztuaren 24a izan da, 29 kirol berritatik bakarra mintzo baita emakumezkoen kirolaren inguruan. Aurreko egunkariaren kasuan bezala, honetan ere emakumezkoen kirol berri gehien dituzten egunak hiru dira (ekainak 8, urriak 4 eta azaroak 8) eta bakoitzean 10 dira emakumezkoaren inguruan mintzo diren berriak.

Grafikoaren garapenari dagokionez, orokorraren antzerako hedapena du, Gara da ekainaren ondorengo beherakada handiena jasaten duena. Datu deigarria da emakumezko kirolarien berri gehien argitaratutako hilabetea eta gutxien argitaratutakoa hurrenez hurren egotea, eta agian horregatik da horren deigarria beherakada hau. Gainerako bi egunkarietan maiatza beherakadaren irudia bada ere, egunkari honen kasuan oso balore altuak hartzen ditu, beste egunkarien ehuneko altuena baino balio altuagoarekin.



7. Irudia: Garako 2015. urteko emakumezkoen berrien portzentajeak hilabeteka (Neuk landua)

Amaitzeko, Noticias de Gipuzkoaren kasuan, arestian aipatu da berri gutxien zein emakumezkoen berri gutxien dituen egunkaria dela, eta portzentaje baxuena duen hilabetea ere badela gehitu behar da. %8,1eko portzentajearekin apirila da berri emakumezko kirolaren berri gutxien dituen hilabetea; eta, beste aldean, ekaina da nabarmen goratzen den hilabetea %20,1ekin. Horrez gain, hilabete hau da egunkari honen kasuan berri totaletatik emakumezkoek ehuneko bostena betetzen duten bakarra.

Egunen analisiarekin jarraitzeko, martxoak 9ko %3,3 eta azaroak 9ko %3,4 portzentajeak dira emakumezkoen kirolaren berri gutxien ageri diren egunak, bigarrena ehuneko orokorrekin bat datorrelarik. Azpimarragarria da aipaturiko azken egun horren aurrekoa izatea emakumezkoen kirolaren berrien portzentaje altuena duena, %29,2ko ehunekoarekin. Emakumezkoen kirolaren inguruan berri gutxien argitaratutako egun bakarra zehaztea ez da erraza, izan ere, berri bakarra argitaratutako 5 egun baitaude (urtarrilak 4, martxoak 9, apirilak 5 eta 6 eta azaroak 9). Beste aldetik, balore altuenak hiru egunetan (ekainak 21, irailak 7 eta urriak 19an) errepikatzen dira, emakumezko kirolariaren inguruan 8 berri bakarrik argitaratuta, Diario Vascoren kasuan bezala.

Grafikoaren garapenari dagokionez, erreparatze hutsarekin agerian gelditzen da zein hilabete den emakumezkoen kirolaren berri gehien dituen, baxuenak zein diren horren erraz esan ezin den arren, jarraian dauden hirurak kasu.

bestalde, hau da grafiko desorekatuena, tarte eta desberdintasun gehien hemen ikusten baitira. Gara egunkarian gertatu bezala, ekaina ondorengo beherakada hau ere oso handia da, baina bestela portzentajeak nahiko lineal mantentzen dira, %10eko baloreen mugitzen delarik.




8. Irudia: Noticias de Gipuzkoako 2015. urteko emakumezkoen berrien portzentajeak hilabeteka (Neuk landua)

2. Emaitza kualitatiboak: irudiak

Egunkarietako kirol alorreko berrietan emakumezkoen kirolaren edota kirolarien inguruko berriei argazkiak atera eta hizkera zein trataeraren arabera multzoka sailkatu dira, patroiz errepikakorrik ematen den ikusteko. Emaitzek adierazten dutenaren arabera, honakook dira emakumezkoen kirolari egozten zaizkion trataera eta irudiak:

1.1. Formatu laburreko informazioa

Emakumezkoen berrien gehiengoak formatu laburra du, hau da, azalpen eta datuen sartu gabe berria era orokorrean aipatzen da:



EN BREVE

Lara Arruabarrena consigue la permanencia en la Copa Federación

TENIS. La tolosarra Lara Arruabarrena, que recogió el reto de Conchita Martínez para liderar el equipo de Fed Cup en la serie ante Argentina en su lucha por la permanencia en el Grupo Mundial II, dio a la selección española el tercer punto de la serie (3-0). Lara se impuso a la número uno argentina, Paola Ormaechea, por 6-1, 4-6 y 9-7. CECILIA CASLA

Irene Usabiaga no perdona en Torre Pacheco

COPA DE ESPAÑA
Irene Usabiaga (Eustrak-Euskadi) conquistó el Trofeo Roldán en Torre Pacheco, quinta puntuable puntuable para la Copa de España de féminas, por delante de Gloria Rodríguez. Belén López (Lointek) es la líder de la Copa de España en categoría élite. Lourdes Oyarbide (Bizkaia) es líder en sub 23 y Maialen Aramendia (Caf Transport) lidera la categoría cadete.

Maidier Unda no logró el pase a cuartos en el GP de Alemania

Maidier Unda no pudo acceder a cuartos de final en el Grand Prix de Alemania. La luchadora alavesa cayó eliminada en la categoría de más de 75 kilos por un resultado de 5-0 ante la germana Kimberley Griel, que a su vez perdió en cuartos ante otra competidora alemana, Maria Selmaier.

1.2. Lorpenen balorazio baxua

Komunikabideen askotan garaipenei baino garrantzia gehiago ematen diete gizonezkoen beste edozein berriri:

PRIORIDAD ES BENGOETXEA

Lo básico es que el índice de la zurdada del puntillo navarro esquite la operación. En ese caso, se podría ampliar el plazo del aplazamiento hasta el 28 de junio, aunque reglamentado esté solamente hasta el 21. Lo ideal es que, si no tiene que pasar por quirófano, tenga tiempo suficiente para afrontar el envite con garantías y, en esta situación, aunque pobres las dos o tres semanas, podrían servir. Así las cosas, entrarían diferentes métodos de sujeción y control de la zona. Se hace casi indispensable una férula para mejorar la disposición del índice y protegerlo de malos golpes.

No obstante, la lesión, provocada por el yerro de un gancho con una pelota con bastante peso, evencuada en pared izquierda, se trata de una rotura del dedo y no como en otras ocasiones de una fractura en la punta. Al considerarse un problema articular, la solución es más espínosa de lo que se podría esperar. La consulta de hoy marcará los tiempos.

Así las cosas, en el peor de los casos, si tiene que pasar por quirófano y la espera se extiende hasta julio, todo apunta a que la Liga de Empresas se decida por incluir en la contienda a Mikel Urrutikoetxea como tercer clasificado en la competición al haber renunciado Juan Martínez de trujo a ser de la partida en la final de consolación.

Mandando con firmeza en anteriores determinaciones con el puntillo de Ibero en semifinales y con Aitor Zubeta en el Parejas, el Reglamento del Manomanista de Primera tiene prevista como fecha límite para la disputa por la xapela el 21 de junio. Pero desde las empresas apuntan a trasladar a esa fecha con Urrutikoetxea en lista o esperar una semana más, incluso dos, con el leizarra en la línea de salida. Hoy se decide en virtud de la situación del índice de Oinatz. ●

LOS APUNTES

- **La lesión.** Oinatz Bengoetxea tiene una rotura articular del dedo índice de la mano izquierda. La preocupación reside en si tendrá que pasar por quirófano.
- **Las opciones.** Lo mejor es que no se tenga que reconstruir quirúrgicamente y con varias semanas podrá llegar a jugar.
- **El tiempo.** Aunque la final se puede aplazar al 21 de junio, el partido podría llegar a dilatarse hasta el 28 o el 5 porque la prioridad es que juegue Bengoetxea.
- **El sustituto.** Si no es posible, entra Mikel Urrutikoetxea el 21.

Oihana Kortazar se impone en la Camille Extreme

CARRERAS DE MONTAÑA - Elitza San Ait Chauo y Oihana Kortazar fueron los primeros clasificados en la Camille Extreme, segunda prueba puntuable de la Copa de Euskadi y de la National Series. La coronación de Maitrika, tercera en la parrilla de Zegama-Aizkorri, registra un nuevo récord en categoría femenina (3h.35.36). -AG-



1.3. Berria aurkitzeko zailtasuna

Berriaren testuan batzuetan azken lerroetan edo era oso laburrean ageri dira emakume kirolarien albisteak eta beste batzuetan ez da emakumezkoen kirolari buruzko informaziorik ageri:



YA NO ES UN FORTÍN

HERNANI SUFRIÓ SU PRIMERA DERROTA LOCAL A MANOS DE LA SANTBOIANA

su primera derrota de la mano local por un claro resultado final, sin embargo, un castigo demasiado duro para el Hernani y un premio para la Santboiana. El partido fue bastante igualado, con los equipos alternándose el balón y en la ocupación del campo. La Santboiana marcó en las zonas de marca, y fue más afortunada, a la vez de atacar, cuando se chocaron con la defensa de los catalanes, pero no consiguió marcar ni un solo tanto, mientras que la Santboiana echó al máximo los platos del conjunto local para lograr hasta cinco goles.

El partido se desarrolló bajo una gran intensidad, adelantó con el juego materializado (0-3). La Santboiana demostraba inferioridad, pero era capaz de dar un resultado cuando el colectivo local, en un momento de desajuste, no pudo aprovechar una gran oportunidad.

lán. Nada más lejos de la realidad. Tras varias jugadas del Hernani en la zona de marca, el gol fue fallado por Pello Pérez, la Santboiana respondió con una larga estancia en el medio campo de los tricolores. Con el balón en posesión del Hernani, el exordiazarra Jamie Chipman interceptó un pase de Ander Gutiérrez en la zona de 22 y avanzó sin oposición para conseguir el primer ensayo de los catalanes y hacer posible el 0-10.

Malá suerte en el primer ensayo y polémica en el segundo. Al filo del descanso, la Santboiana volvió a poseer el balón (0-15), pero los hernaniarras reclamaron al árbitro que el autor de la marca estaba fuera del campo al anotar.

Los hernaniarras no fueron capaces de anotar ningún punto ante los catalanes y acabaron encajando un marcador de 0-32.

El resultado final acabó siendo un castigo demasiado grande para el Hernani y un premio excesivo para la Santboiana.

